

» TELEGRAMA

Ekainaren 1etik 4ra **Zurrumbilo** euskal arte eszeniko garaikideen jaia antolatu dute Gasteizen: Baratzta aretoan, Oihaneder euskararen etxean eta TAEn izango dira emanaldiak *STOP* Hamar urte daramatza **Rockumentalak** festibalak Zarautzen musika eta zinema uztartzen. Aurtengo edizioa ekainaren 2an hasiko da Ainara LeGardonen kontzertuarekin eta The Stooges taldeari buruzko *Gimme danger* filmarekin *STOP* Ekainaren 1ean zabalduko da Bilboko Alondegian **Europako mugak** erakusketa, 5W taldeak Mediterraneoan jasotako esperientziak biltzen dituen. Hilaren bukaera arte ikusgai *STOP*

» DISKOA

Rock instrumental fina



Joxi Ubeda



II SOFA

Bonberenea ekintzak, 2017

Pieza instrumentalak jotzen ditu Sofa taldeak, letrarik gabekoak. Giro musika da, azken batean, rock instrumental fina, dotorea. Melodia eta harmonia politak egiten dituzte indar eta grina handiarekin. *II* bigarren diskoko kantuak ederki landu dituzte, ederki moldatu, eta lana oso ongi ekoiztu dute Karlos Osinagarekin. Soinu sendoa, trinkoa eta distiratsua gauzatu dute.

Taldeakideak Zumaia-koak eta Zarauz-koak dira: Jonbe Martinez (gitarra), Kepa Izeta (baxua) eta Imanol Sesma (bateria). Trebetasunez aritzen dira beren musika tresnekin, bizi, eta gatz eta piper handiarekin.

2012an sortu zuten Sofa taldea, eta *I* lehen lana 2015ean kaleratu zuten.

200 aleko lehen edizio mugatua egin zuten, eta diskoak eskuz eta mimo handiz bildu zituzten kartoizko kutxatan. Bigarren edizioa ere egin zuten, eta ale guztiak saldu zituzten. Disko horrek oihartzuna izan du, berrogei emanaldi baino gehiago egin dituzte diskoa kaleratu zutenetik, eta taldea gero eta eza-gunagoa da. *II* lan berria haren jarraipen ederra da. Beren bidean aurrera egin dute.

Musika, rock musika, beren eran ulertzen eta jotzen dute. Modu horretan azaleratzen dituzte haien sentipenak eta kezak, eta transmititzen dute bizitasuna, bizipoza, gogoia eta ilusioa grabazioetan eta jendaurreko emanaldietan. ■

Sofa taldeko
Jonbe Martinez (gitarra),
Kepa Izeta (baxua) eta
Imanol Sesma (bateria).

